

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/10/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, finantza-tresnen merkatuei buruzko 2004/39/EE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/10/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 por la que se modifica la Directiva 2004/39/CE relativa a los mercados de instrumentos financieros, por lo que se refiere a las competencias ejecutivas atribuidas a la Comisión*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 76 de 19/03/2008)

ZUZENTARAUAK

2008/10/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

finantza-tresnen merkatuei buruzko 2004/39/EE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren
47. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena²
aztertu dute,

Europako Banku Zentralaren Irizpena³ aztertu dute,

Tratatuaren⁴ 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/39/EE Zuzentaruaren⁵ arabera, zenbait neurri Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari jarraiki onartu behar dira. Batzordeari⁶ esleituriko betearazpen-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu Erabaki horrek.

² C 161 EO, 2007-07-13koa, 45. or.

³ C 39 EO, 2007-02-23koa, 1. or.

⁴ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 14koa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

⁵ L 145 EO, 2004-04-30ekoa, 1. or. Zuzentaru hori 2007/44/EE Zuzentaruak —EBEO L 247, 2007-09-21ekoa, 1. or.— aldatu zuen azkenekoz.

⁶ L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —EO L 200, 2006-07-22koa, 11. or.) aldatu zuen.

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Horren bidez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera onetsitako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko irispide orokorreko neurriak hartzeko kontrol-dun arautze-prozedura finkatu zen. Badago elementu horietako batzuk ezabatzea edo funtsezkoak ez diren beste elementu batzuen bidez egintza osatzea ere.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak⁷ 2006/512/EE Erabakiaren gainean kaleratutako Adierazpenari jarraiki, kontrolpeko arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluko prozeduraren arabera hartutako indarreko egintzei aplikatu ahal izateko, egintzok egokitu egin behar dira, prozedura aplikagarrien bidez.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, 2004/39/EE Zuzentaruaren betearazteko beharrezko neurriak har ditzan. Finantza-merkatuan gertatu diren aldaketa teknikoak aintzat hartzea eta Zuzentaruaren era uniformean aplikatzen dela bermatzea dira asmoak. Zuzentaru horrek aurreikusita dituen definizioak moldatu edo salbuespenen irispidea aldatzeko dira neurriak, bai eta inbertsio-enpresei edo kreditu-erakundeek ezarritako antolamendu-betekizunak edo funtzionamendu-baldintzak zehaztu nahiz osatzeko eta Zuzentaru horren negoziazio batzuetan ezarritako negoziazio aurreko eta osteko gardentasun-baldintzei buruzko zehaztapenak eransteke ere. Irispide orokorreko neurriak direnez eta 2004/39/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuez osatzea dutenez xede, 1999/468/EE Zuzentaruaren 5 bis artikuluan aurreikusita dauden kontrolpeko arautze-prozeduren arabera hartu behar dira.

(5) 2004/39/EE Zuzentaruak denbora-muga du finkatuta, Batzordeari esleitutako betearazpen-

⁷ C 255 EO, 2006-10-21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

eskumenetarako. 2006/512/EE Erabakiaren gaineko Adierazpenean, hauxe jakinarazi zuten Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak: Erabaki horrek konponbide horizontal eta egokia eskaintzen diola Europako Parlamentuak elkarrekin erabakitzeko prozeduraren bidez onartutako tresnen aplikazioa kontrolatzeko desioari, eta, beraz, betearazpen-eskumenak denbora-mugarik gabe eman behar zaizkiola Batzordeari. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, bestalde, beste hau adierazi zuten: ahalik eta bizkorren onartuko zituztela Batzordeari betearazpen-eskumenak eskuordetzeko azken data aurreikusten duten tresnetako xedapenak indargabetzeko proposamenak. Kontrolpeko arautze-prozedura abian jarri ostean, ezabatu egin behar da 2004/39/EE zuzentarauan denbora-muga finkatzen duen xedapena.

- (6) Batzordeak ebaluatu egin behar du, aldian behin, esleitu dizkioten betearazpen-eskumenei buruzko xedapenen funtzionamendua. Horrela, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak aukera izango dute, eskumenon hedadura eta Batzordeari ezarritako prozedura-baldintzak egokiak diren eta eraginkortasuna eta erantzukizun demokratikoa bermatzen duten egiaztatzeko.
- (7) Hortaz, bidezkoa da 2004/39/EE Zuzentaria aldatzea.
- (8) 2004/39/EE Zuzentarian egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozedurari bakarrik eragiten diotenez, ez dago zertan estatu kideek bereganatu. Horrela, bada, ez dago ondorio horietarako xedapenik ezarri beharrik.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2004/39/EE Zuzentarian aldaketa hauek egin dira:

- 1) Bigarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:
- a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Esaldi hau erantsi da:
- «Neurri horiek, Zuzentaria honetan funtsezkoak

ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

2) Laugarren artikulua honela aldatu da:

- a) Lehen paragrafoko 2. puntuan «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Bigarren paragrafoa honela aldatu da:
- i) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

ii) Lerrokada hau erantsi da:

«Artikulu honetan aipatutako neurriok, Zuzentaria honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

3) Hamahirugarren artikulua 10. paragrafoa honela aldatu da:

- a) «64. artikulua . paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Esaldi hau erantsi da:

«Neurri horiek, Zuzentaria honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

4) Hamabosgarren artikulua 3. paragrafoan, bigarren eta hirugarren lerrokadetan, «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira eta, haien ordez, «64. artikulua 3. paragrafoan aurreikusita dagoen arautze-prozeduraren arabera» idatzi da.

5) Hamazortzigarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:

- a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzentaria honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6) Hemeretzigarren artikulua 10. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

7) Hogeita batgarren artikulua 6. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

8) Hogeita bigarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

9) Hogeita laugarren artikulua 5. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

10) Hogeita bosgarren artikulua 7. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Esaldi hau erantsi da:

«Neurri horiek, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

11) Hogeita zazpigarren artikulua 7. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

12) Hogeita zortzigarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:

a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.

b) Lerrokada hau erantsi da:

«Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- 13) Hogeita bederatzigarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:
- a) Lehen lerrokadan, «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Lerrokada hau erantsi da:
- «Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».
- 14) Hogeita hamargarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:
- a) Lehen lerrokadan, «64. artikulua 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Lerrokada hau erantsi da:
- «Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».
- 15) Berrogeigarren artikulua 6. paragrafoa honela aldatu da:
- a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Lerrokada hau erantsi da:
- «Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».
- 16) Berrogeita laugarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:
- a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Lerrokada hau erantsi da:
- «Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».
- 17) Berrogeita bosgarren artikulua 3. paragrafoa honela aldatu da:
- a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Lerrokada hau erantsi da:
- «Lehen lerrokadan aipatutako neurriak, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».
- 18) Berrogeita hamaseigarren artikulua 5. paragrafoa honela aldatu da:
- a) «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira.
- b) Esaldi hau erantsi da:
- «Neurri horiek, Zuzendarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 64. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».
- 19) Berrogeita hemezortzigarren artikulua 4. paragrafoan, «64. artikulua 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki» terminoak ezabatu egin dira eta, haien ordez, «64. artikulua 3. paragrafoan aurreikusita dagoen arautze-prozeduraren arabera» idatzi da.
- 20) Hirurogeita laugarren artikulua honela aldatu da:
- a) Honako testu hau jarri da 2. paragrafoaren ordez:
- «2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzeak, eta 8. artikuluan xedaturikoa bete beharko da».
- b) Hirugarren paragrafoko testuaren ordez, honako hau jarri da:
- «3. Paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzeak, eta 8. artikuluan xedaturikoa bete beharko da.
- 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da».
- c) Paragrafo hau erantsi da:
- «4. Beranduenez 2010eko abenduaren 31n eta, ondoren, gutxienez hiru urterik behin, bere

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

betearazpen-eskumenei buruzko xedapenak berrikusiko ditu Batzordeak eta eskumen horien funtzionamenduari buruzko txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txostenean, Batzordeak zuzentarau honi aldaketak proposatzeko beharra aztertuko da bereziki, esleitu zaizkion betearazpen-eskumenen mugak egoki bermatzeko. Aldaketa egin ala ez erabakitzen denean, arrazoiak eman beharko dira zehatz-mehatz. Beharrezkotzat jotzen bada, Batzordearen betearazpen-eskumenen esleipenari buruzko xedapenak aldatzeko lege-proposamena ere erantsiko zaio txostenari».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon eginga, 2008ko martxoaren 11n.

<i>Europako Parlamentuaren izenean</i>	<i>Kontseiluaren izenean</i>
<i>Lehendakaria</i>	<i>Lehendakaria</i>
H.-G. PÖTTERING	J. LENARČIČ